

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko irailaren 27an

94 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektua. Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatu espainiarreko Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten garapenaren aldeko lankidetzari dagokionez. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sakanan industriarako lurzorua sor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Batasun kanpotik etorri eta nazioartean lehia handikoak diren elikagaien etiketen aldaketa proposa dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa baimen dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “goi mailako zuzendarien” lan kontratuen deuseztapena lan arloko legerira egokitu dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte ekimeneko ikastetxeetako lan orduen kopurua eta irakaskuntza publikokoa berbera izan dadin. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektua**

### *HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2001ko maiatzaren 9ko 49. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hauek defendatzen ahalko dira:

– 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 13, 14 eta 15 zenbakiko zuzenketa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

Zuzenketa horiek 2001eko ekainaren 14ko 66. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **IRIZPENA**

#### **Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektua**

##### **ZIOEN AZALPENA**

Iruña-Lizarra-Logroño ardatza edukiera handiko errepide gisa eraikitzea munta handiko helburua da Nafarroako eskualde zabal bat, Estellerria batez ere, sendotu eta garatzeko, eta Nafarroako lurraldeen arteko oreka bilatzeko, errepideen azpiegiturei dagokienez. Edukiera handiko errepide horren eraikuntzari esker lotu dira Nafarroa eta Ebro Haranaren iparraldea, –Logroñon barna–, gure ingurune herrialde eta eremu ekonomikoekin izanen ditugun harreman sozial, komertzial eta industrialen sarea zabaltzearen alde jokatzu.

Nafarroako Errepideen I. Plan Gidariak errepide hau kontuan hartu zuen Nafarroako komunikazioaren ardatz estrategiko bezala, Nafarroako Parlamentuak hura 1997ko abenduaren 2an onetsi zuenean.

Iruña-Lizarra-Logroño errepidearen egungo egoera, trafikoak zer bilakaera izanen duen eta Nafarroako eskualde horrek behar duen komunikazio sarea ikusita, argi dago berehala bihurtu behar dela autobia errepide hori.

Iruña-Lizarra-Logroño autobia berriko inbertsioak, guztira, 48.000 milioi pezeta (288,05 Meuro) egiten ditu, behin betiko trazadurak eta haiek eraikitze proiektuak prestatu ahala zehaztuko bada ere. Iruña eta Lizarra arteko autobia tarterako, 30.000 milioi pezetako (180, 03 Meuro) kalkulua egin da.

Horrelako komunikazio bide bat egitea asko luzatu daiteke baliabide ekonomikoak jartzen ez badira. Administrazio publikoen aurrekontuko gastuaren kontrolak, gaur egun, munta handiko obretarako baliabideak erabiltzeko ahalmena mugatzen du, eta horixe bera gertatzen da Iruña-Lizarra-Logroño autobian.

Espania Ekonomia eta Moneta Batasunean integratzeko gure erkidegoak erakutsi duen elkartasunaren ondorioz, Nafarroak Aurrekontua Bategiteko Eszenatokia eta Egonkortasun Ituna onartu behar izan ditu, eta mugatuta gelditu dira zorrak hartzeko Foru Ogasunaren ahalmena eta aurrekontuaren defizita.

Horregatik, Nafarroak edukiera handiko errepide hori lehenbailehen izan dezan, ekimen pribatuaren partaidetza onartu behar da hura finantzatzeko prozeduran. Horrela, obrak egiteko epeak aise laburragoak izanen dira eta, batez ere, askoz lehenago jasoko du gizarteak onura, inbertsio horiek sortutako aberastasunaren ondorioz.

Europar Batasunak babes handia ematen dio ekimen pribatuari azpiegitura publikoak finantzatzeko, eta bada horren esperientzia bai Europan bai Espainian.

Ekimen pribatuak azpiegitura publikoen finantzaketan laguntzeko eta, beraz, dagokion arriskuaren kargu egin dadin, kontzesioa da moduetako bat, non "eskaeraren kanona" aplikatzen baita. Horren bidez, Administrazio Publikoak, eraikitzen den azpiegituraren titularra denez, komunikazio bidetik zirkulatzen duen trafikoaren arabera ordaintzen dio kontzesio-hartzaileari, eta muga batzuk jartzen dizkio ordainketa horri, trafikoaren, errentagarritasun ekonomikoaren, inbertsio eta eragiketa kostuen edo kontzesio-hartzaileari bideragarritasun ekonomikoa bermatzen dioten beste parametro batzuen arabera, baina Administrazio Publikoaren esku uzten du zer ekarpen ekonomiko egin proiektuari kontzesio epeak dirauen bitartean.

Edozein eraikuntzari dagokion industri mozkina eta ohiko zorpetze publikoaren sistemari lotutako mozkin finantzarioa bateratu nahi ditu proposatu sistemak, kontzesioa hartzen duen sozietatearen fondoei honenbesteko bat ordainduz, ustez eta enpresa proiektu baten arriskua murriztean ondoriozko tasak ere aise murrizten direla eta, beraz, enpresaren mozkina ere. Horregatik, proiektuaren kostuak, guztira, ez du nahitaez ohiko finantzaketa publikoaren kostutik alden behar.

Foru lege honek Iruña-Lizarran-Logroño edukiera handiko errepede berria eraikitzeko kontratazioa eta ustiapena arautzen ditu, eta, aldi berean, aukera ematen dio Nafarroako Foru Komunitateari bere laguntza ekonomikoa eman dezan, aurrekontuko baliabideen bitartez edo diruz bestelakoen bitartez, zein komeni den.

Nafarroako Ogasunari ekarriko dizkion ondorio ekonomikoen aldetik, foru legean aurreikusitako prozedurak bide ematen du urte anitzeko konpromisoak hartzeko, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko foru legeak uzten duenetik haratago, horren beharra baitago kontzesio epeari dagokion gastu konpromisoa hartzeko.

### **1. artikulua.** Xedea.

Foru lege honen xedea baldintza administratibo eta finantzarioak ezartzea da, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean Iruña-Logroño edukiera handiko errepede eraiki, zaindu eta ustiatzeko kontrataziorako.

### **2. artikulua.** Kontratazioa.

Kontzesio bidez eraiki, zaindu eta ustiatuko da errepedea, oso-osorik edo zati bat, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 foru legean ezarritakoari jarraituz.

Lehiaketaren oinarrietan ezarriko da kontzesioaren gehieneko epea, baina inoiz ere ez 30 urtetik gorakoa.

### **3. artikulua.** Finantzaketa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kontzesio lehiaketaren klausula administratibo partikularren pleguan zehaztuko du aurrekontu bidezko fondo publikoen ekarpena, edo diruz bestelakoa.

Ekarpen guztiek ekarriko dute tarifa murriztea edo kentzea errepede erabiltzeko; bestela, tarte jakin batzuen erreskate aurreratua.

1. Aurrekontu bidezko fondo publikoak azpiegitura erabiltzeko sartzan direnean, haien kalkulua egiteko, errepedearen tarte bakoitzeko erabiltzaileen kopurua, gizartearentzat duen errentagarritasuna eta errepedeko zerbitzu publikoak egiteko obligazioa hartuko dira kontuan.

2. Aurrekontu bidezko fondo publikoak azpiegituran berean inbertitzeko sartzan direnean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak beste administrazio publikoekin egindako itunen ondoriozko fondoak ezartzen ahal ditu, edo Europar Batasuneko egitura funtsetakoak.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak diruz bestelako ekarpenak egiten ahal ditu, esate baterako, lehendik egindako obrak, guztira inbertsioa murrizteko eta kontzesio kontratua barrenean zaindu eta ustiatu beharreko azpiegituraren parte izan daitezen.

### **4. artikulua.** Bideragarritasunaren azterlana.

Obra kontzesioaren espediente abiaturik, bideragarritasunaren azterlana egingen da. Bertan, azpiegitura erabiltzeko hipotesi ekonomikoak jasoko dira, Foru Komunitateko Administrazioak aurrekontu bidezko funts publikoen bitartez edo diruz bestelakoen bitartez egin beharreko ekarpenak zehazteko, eta kontzesioaren kontraturako baldintza ekonomikoak ezartzeko.

### **5. artikulua.** Gastu konpromisoa.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 41.3 artikuluan ezarritako denbora muga ez zaio foru lege honetan aurreikusitako obrari aplikatuko, aurre-

kontu bidezko funts publikoen ekarpena, 3. artikuluan jasoa, egin dadin.

**Xedapen gehigarri berria**

Emakida hartzen duen entitatea, aldez aurretik Ekonomia eta Ogasun Departamentuan eskaria eginda, Enpresak Sustatzeko Sozietatetzat hartuko da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko aben-

duaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 167. artikuluko 4. idatz-zatian ezarrikoaren ondorioetarako.

**Azken xedapena**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernu eta Estatu espainiarreko Gobernu premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten garapenaren aldeko lankidetzari dagokionez**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Osoko Bilkurak, 2001eko irailaren 20an egin-dako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernu eta Estatu espainiarreko Gobernu premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten garapenaren aldeko lankidetzari dagokionez".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernu eta Estatu espainiarreko Gobernu premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten garapenaren aldeko lankidetzari dagokionez**

1. Nafarroako Gobernu premiatzea garapenerako lankidetzarako kontusaila gehitu dezan Nafarroako 2001eko aurrekontu orokorretako gastuen aurrekontuko ehuneko 0,7ra iritsi arte, Parlamentu honek lankidetzari eta hirugarren munduaren garapenerako laguntzari buruz hartutako erabakian eta Garapenerako lankidetzari buruzko foru legearen zioen azalpenean erabakitakoa betez.

2. Estatu espainiarreko gobernu premiatzea garapenerako lankidetzarako programari eman diezazkion NPGaren ehuneko 0,7ra iristeko behar diren baliabideak, horretarako baliatuz Nazio Batuen erabakia (estatu espainiarreko gobernuaren sostenguarekin onartua), zeinetan estatu aberastuei haien NPGaren ehuneko 0,7 garapenerako lankidetzari ematea gomendatzen baitu, eta "Elkartasunerako Ituna" izenekoan sinatutako erabakia, zeinak Parlamentuan ordezkari zuten talde politikoen konpromisoa atxikitzen baitzuen 2000. urtean garapenerako lankidetzarako NPGaren ehuneko 0,7 emateko.

3. Estatu espainiarreko gobernu premiatzea garapenerako lankidetzarako duen programan FAD motako kredituak erabil ez ditzan lankidetzarako tresna gisa, baliabideak Defentsa Ministerioaren bitartez bideratzea saihestu dezan beti eta aipatutako erakundeak (Parisko Kluba, Merkataritzaren Mundu Erakundea, Nazioarteko Moneta Fondoa eta Mundu Bankua) ez ditzan garapen eragilezat har.

4. Estatu espainiarreko gobernu premiatzea "bidezko merkataritza izeneko sustatzeko eta herrialde pobretuen kanpo zorra erabat deuseztatze" ekintzei ekin diezaien, Garapenerako lankidetzari buruzko foru legeak dioena betetzeko.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sakanan industriarako lurzorua sor dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Osoko Bilkurak, 2001eko irailaren 20an egin-dako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sakanan industriarako lurzorua sor dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sakanan industriarako lurzorua sor dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Sei hilabeteko epean Gobernuak, tokian tokiko ekonomia eta gizarte eragileen parte hartzearekin, Nafarroako eskualdeetako berrindustrializazio plan bat egin dezan.

2. Eginik dagoenean, Biltzar honetan aurkez dezan eztabaidarako.

## **Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Batasun kanpotik etorri eta nazioartean lehia handikoak diren elikagaien etiketen aldaketa proposa dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Osoko Bilkurak, 2001eko irailaren 20an egin-dako bileran, Socialistas del Parlamento de Navarra eta Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko taldeek egindako mozioei aurkezturiko zuzenketa "in voce" baten bidez, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Batasun kanpotik etorri eta nazioartean lehia handikoak diren elikagaien etiketen aldaketa proposa dezan". Aipatu mozioak 2001eko maiatzaren 51. eta 2001eko ekainaren 25eko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Batasun kanpotik etorri eta nazioartean lehia handikoak diren elikagaien etiketen aldaketa proposa dezan**

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du elikagaien (adibidez, zainzurien) etiketei dagokienez aldaketa egitea proposa dezan, produktuaren jatorria argi adierazteko eta kontsumitzailea okerreko ondorioetara ez iristeko.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa baimen dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Osoko Bilkurak, 2001eko irailaren 20an egin-dako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa baimen dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa baimen dezan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du administrazio publikoetan beharrezkoak diren bideak jorra ditzan kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasun Ministerioko Estupefazianteak Kontrolatzeko Zerbitzuari eska diezaion, Estupefazianteei buruzko 17/1967 Legeko 8.2 eta 22. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, administrazio-baimena eman diezaien kanabisa helburu terapeutiko zein aringarriekin erabiltzen duten nafarrei kanabisa legez eduki ahal izateko.

---

## **Mozioa. Horren bidez, Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da "goi mailako zuzendarien" lan kontratuen deuseztapena lan arloko legerira egokitu dezan**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da "goi mailako zuzendarien" lan kontratuen deuseztapena lan arloko legerira egokitu dezan".

Biltzarrak, 2001eko irailaren 20an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko maiatzaren 22ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte ekimeneko ikastetxeetako lan orduen kopurua eta irakaskuntza publikokoa berbera izan dadin**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte ekimeneko ikastetxeetako lan orduen kopurua eta irakaskuntza publikokoa berbera izan dadin".

Biltzarrak, 2001eko irailaren 20an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko maiatzaren 22ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<p><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b></p> <p><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urte bat..... 6.300 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .</p>	<p><b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b></p> <p><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b></p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---